

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), 2018ko urriaren 27tik azaroaren 2ra.

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkair Ofiziala 2018/10/29

- **EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA JUSTIZIA SAILA).** - Errepideko salgaien garraioaren industriaren eta Arabako garraio agentzietarako sektorearen hitzarmen kolektiboaren 29.artikuluaren interpretazioari buruzkoaen akordioa. 3966 xedapena - 2 or.

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2018/11/02

- Ebazpena, 2018ko urriaren 31koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez 2018ko irailaren 12koan egindako hutsegiteak zuzentzen diren; azken horren bitartez, urpekaritza profesionalaren eta medio hiperbarikoen kolektiboaren II. hitzarmen kolektiboaren inguruko Akordioaren Akta erregistratzen eta argitaratzen da. 15047 xedapena - 1 or.

II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2018/10/27

- **PREMIAZKO NEURRIAK.** - 16/2018 Errege Dekretua, urriaren 26koa, zeinaren bitartez neurri batzuk hartzen diren pertsonen eta merkantzien legez kanpoko trafikoaren aurka erabilitako ontziei dagokienez. 14747 xedapena - 7 or.

2018/10/30

- **OGASUN MINISTERIOA. - Ordainpeko autobideak.** - 1337/2018 Errege Dekretua, urriaren 29koa, zeinaren bitartez aldatzen den emakida-erregimeneko autobideen kontserbaziorako eta ustiapenerako klausula orokorren baldintza-agiria, urtarilaren 25eko 215/1973 Dekretuaren bitartez onartua, egokitzeko apirilaren 25eko 286/2014 Errege Dekretuan ezarritakora; azken horren bitartez, merkantzien garraiorako ibilgailu batzuei Estatuko Errepide Sareko emakida-erregimenean aplikatu beharreko ordainsariak ezartzen dira. 14802 xedapena - 4 or.
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. - Mahastizaintzako ekoizpena.** - 1338/2018 Errege Dekretua, urriaren 29koa, zeinaren bitartez arautzen den mahastizaintzako ekoizpenaren potentziala. 14803 xedapena - 61 or.

- **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATE MINISTERIOA. – Ezgaitasunak dituzten pertsonak.** - 1341/2018 Errege Dekretua, urriaren 29koa, zeinaren bitartez aldi baterako neurriak ezartzen diren indarrean eusteko, ezgaitasunak dituzten pertsonen alde, mugikortasun diru-laguntzei eta garraio gastuengatiko konpentsazioari. **14806 xedapena - 3 or.**
- **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATE MINISTERIOA. – Medikamentu homeopatikokoak.** - Ebazpena, 2019ko urriaren 29ko, Medikamentuen eta Produktu Sanitarioen Espainiako Agentziarena, zeinaren bitartez ezartzen den 1345/2007 Errege Dekretura, urriaren 11koa, egokitze asmoa komunikatu den medikamentu homeopatikoen zerrenda, komertzializazio baimena aurkezteko egutegia finkatzen den eta medikamentu homeopatiko batzuk merkatutik erretiratzeko agintzen den. **14896 xedapena - 42 or.**

2018/10/31

- **OGASUN MINISTERIOA**
 - **Zerga bereziak.** - HAC/1147/2018 Agindua, urriaren 9koa, zeinaren bitartez onartzen diren uztailaren 7ko Errege Dekretuz onartutako Zerga Berezien Araudiaren 27, 101, 102 eta 110. artikuluetan xedatutakoaren garapen arauak. **14900 xedapena - 43 or.**
 - **Balio Erantsiaren gaineko Zerga.** - HAC/1148/2018 Agindua, urriaren 18koa, zeinaren bitartez honakoak aldatzen diren: EHA/3434/2007 Agindua, azaroaren 23koa, zeinaren bitartez onartzen diren hileroko autolikidazioko 322 eredu, eredu indibiduala, eta hileroko autolikidazioko 353 eredu, eredu gehitua, eta datuen komunikazioko 039 eredu, entitate multzoen erregimen bereziari dagozkienak Balio Erantsiaren gaineko Zergan; EHA/3012/2008 Agindua, urriaren 20koa, zeinaren bitartez onartzen den hirugarren pertsonetikiko operazioen urteroko aitorpeneko 347 eredu, bai eta diseinu fisikoak eta logikoak eta lekua, modua eta aurkezpen epea ere; EHA/3786/2008 Agindua, abenduaren 29koa, zeinaren bitartez onartzen diren Balio Erantsiaren gaineko Zerga 303 eredu, autolikidazioa; EHA/3111/2009 Agindua, azaroaren 5koa, zeinaren bitartez onartzen den Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urteroko laburpen-aitorpeneko 390 eredu; EHA/1274/2007 Aginduaren, apirilaren 26koa, I. gehigarria, zeinaren bitartez onartzen diren enpresarien, profesionalen eta atxikitzaileen eroldako alten, aldaketen eta bajeen errolda aitorpeneko 036 eredu, eta 037, alta, aldaketa eta bajako errolda aitorpen sinplifikatua enpresarien, profesionalen eta atxikitzaileen erroldan; eta HAP/2194/2013 Agindua, azaroaren 22koa. **14901 xedapena - 23 or.**
- **BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA. –Antolaketa.** - INT/1149/2018 Agindua, urriaren 29koa, zeinaren bitartez arautzen den Larritasuneko Irratiaren Sare Nazionalaren antolaketa eta funtzionamendua. **14902 xedapena - 9 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2018/10/31

- **SEGURTASUN SAILA.** - 151/2018 DEKRETUA, urriaren 23koa, zeinaren bidez sortzen eta arautzen baita trafiko-istripuen biktimen Euskal erregistroa. 5343 xedapena - 5 or.

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2018/10/31

- **ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2018 Zerga premiazko araugintzako dekretua, urriaren 23koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko zerga araudia abenduaren 28ko 10/2017 Legeak ekonomia itunean sartutako aldaketetara egokitzea. 4011 xedapena 15 or.
- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 614/2018 Foru Agindua, urriaren 24koa. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 9ko 133/2005 Foru Agindua aldatzen da, zeinaren bidez onesten baita finantza aktiboekin eta beste balore higikor batzuekin egindako eragiketen urteko aitorpenerako 198 eredia, bai eta haren barruko orrien ordeztu ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarria erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere. 4033 xedapena - 8 or.

2018/11/02

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).**
 - Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 615/2018 Foru Agindua, urriaren 24koa. Onartzea 280 eredia, epe luzerako aurrezki planen urteko aitorpen informatiboari buruzkoa. 4046 xedapena - 14 or.
 - "Hutsa antzeman da 2018ko urriaren 31ko ALHAOn, 125. zk., argitaratutako 2018/4033 iragarkian, hain zuzen ere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren azaroaren 24ko 614/2018 Foru Aginduari buruzkoan. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 9ko 133/2005 Foru Agindua aldatzen da, zeinaren bidez onesten baita finantza aktiboekin eta beste balore higikor batzuekin egindako eragiketen urteko aitorpenerako 198 eredia, bai eta haren barruko orrien ordeztu ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarria erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere. 2018/4033. 4103 xedapena - 9 or.

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2018/10/31

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 1727/2018 FORU AGINDUA, urriaren 22koa, 2018ko irailaren 25eko 1554/2018 Foru Agindua aldatzen duena. Foru agindu horren bidez, Sozietateen gaineko Zergaren konturako zatikako ordainketarako 222 eredia onesten da. Zerga-baterakuntzako araubidea. **3 or.**
- **LANA ETA JUSTIZIA SAILA.**
 - Erabakia Lan eta Justizia saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Gasolina Zerbitzuguneko sektoreko Hitzarmen Kolektiboaren aldakuntza erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48004095011994). **5 or.**
 - Huts-zuzenketa, honako Ebazpena honena: «Ebazpena, 2018ko irailaren 14koa, Bizkaiko Lan eta Gizarte Segurantzako Ordezkariarena, 2019 urterako Bizkaiko Lurralde Historikoaren tokiko eta lurraldeko festen egutegia ezartzen duena». **1 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2018/10/30

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**
 - 25/2018 Foru Dekretua, urriaren 23koa, interes orokorreko xedeen esparruan lehenetsuneko mezenasgo jarduerak 2018. eta 2019. urteetarako ezartzen dituen. **7147 xedapena - 7 or.**
 - 26/2018 Foru Dekretua, urriaren 23koa, abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretua, zerga kontsulta idatzien eta aurretiazko tributazio proposamenen prozedurak garatu eta Zergen Aholku Batzordea sortzen duena, aldatzeko. **7149 xedapena - 2 or.**

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): **Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO